

Jardunaldiak HUHEZIn Herri eskubideak, autodeterminazioa eta mundu gobernantza-ri buruz

2006/04/27

Herri eskubideak, autodeterminazioa eta mundu gobernantza



Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, HUHEZIk, eta Herri Eskubideen Ikasgunea Sortzen elkarteak, HEISeK, jardunaldi batzuk antolatu dituzte Eskoriatzan, **apirilaren 27an eta 28an** egiteko.

Jardunaldien gaia izango da "**Herri eskubideak, autodeterminazioa eta mundu gobernantza**".

Zergatik jardunaldi hauek

Euskal Herriak une garrantzitsua bizi du, eta gure herria **nazioarteko agendan** sartu da. Horrelako momentu batean garrantzitsua da nazioarteari begiratu ematea, eta bertan gure lekua eta aukerak zeintzuk diren hausnartzea.

Izan ere, nazioarteko ordena berridazten ari da, munduan arkitektura politiko berria sortzen ari da: Sobietar Batasunaren gainbehera, Berlingo harresiaren erortzea, Europako Batasuna eta antzeko integrazio (ekonomiko) prozesuak... Mundua gobernatzeko instituzioak aktore garrantzitsuagoak bilakatu dira.

Herrien eskubideak eta autodeterminazioa eztabaida horren parte dira. Auzi horiek estatuaren barne-dimentsioarekin lotura izateaz gain, nazioarteko dimentsioa ere badute. Eta nazioarteak badu zeresanik gatazken konponbidean.

Helburuak:

1. Euskal Herriko talaiatik, mundu gobernantzari eta botere banaketari hurbilpena eskaintzea.
2. Nazioarteko komunitatean, 'ez zentralak' diren erakundearen parte hartze politikoa eta eragiteko gaitasuna ezagutzea
3. Gai honen inguruan Euskal Herriko komunitate akademikoan zein sozialean interesa sustatzea

Egitaraua:

- **Lehen eguna: Nazioarteko komunitatea eraldaketa bidean**

08:30 Akreditazioak

09:30 Jardunaldien irekiera

10:00 Miquel Alfonso Martínez (Nazio Batuetako aditua): 2010-ri begira, eraldakuntzak mundu gobernantzako erakundeetan. Nortzuk subjektu?

11:30 Alex Ugalde (Nazioarteko Harreman irakaslea EHU): 'Ez zentralak' diren gobernuen egitekoa maila askotako Gobernantzadun (*multi level*) Europar Batasuneko esparruan.

13:30 Bazkaria.

15:30 Alejandro Tietelbaum (AAJko kidea eta jurista: Nazio Batuei buruzko eztabaida. Zertarako Nazio Batuak? Ze leku dagokio instituzio honi gaurko munduan?)

17:00 Atsedena

17:30 Jaume Reyner (Zuzenbide Publiko irakaslea Tarragonako

Unibertsitatean eta FOCDako lehendakaria): Autodeterminazio eskubidea XXI. mendean.

- **Bigarren eguna: Gatazkak eta pertsonen eskubideei errespetua**

09:00 Mateo Zuppi (Santegidioko Komunitatea): Bitartekaritza gatazketan: gizarteko sektore eta lobby ezberdinen papera.

10:30 Onno Sero (UNESCOko egitarauen koordinatzailea Katalunian): Nazio Batuen esku hartzea barne gatazketan.

12:00 Atsedenaldia

12:30 Amaia Andrieu (Irakaslea EHUen eta aditua genero kontuetan): Genero dimentsioa gatazken konponbidean.

14:00 Bazkaria.

15:30 Verena Graf (LIDLIP, Geneva): Bakea erdiesteko ahaleginak, testuinguru ezberdinen arteko alderaketa.

17:00 Atsedenaldia

17:30 Natalia Alvarez (Ikertzailea nazioarteko zuzenbidean, Aberdeen-eko Unibertsitatea): Joera eta mekanismo nagusiak gatazkak gainditzeko zereginetan.

19:00 Jardunaldien itxiera